




sortzen dugu



Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara. Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Hau da gure kultura.

BILBAO 700 • III MILELIUM

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)




# MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

# berria

Lege gordailua: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025

2001ko URRIA 37. zkia.  
125 pzta.



*Otxarkoaga  
40. urteurrena*

*XXI. mendeko guda*

*Ali Aurrekoetxea,  
Agirletako  
pandereterue*

  
**Unai Molinero**  
Azken intsumitu presoak




## Otxarkoagako zine zaharra (1970)

*Argazki zaharraren atalera Otxarkoagako poligonoko erretratu hau dakargu oraingoan, sortu zaneke berrogeigarren urtea betetzen danean. Otxarkoagako zine zaharra daukogu begien aurrean, gaur egun auzo-etxea dagoan tokian bertan hain zuzen. Ikusgarri egiten jaku kalea hutsik egotea, autorik ez dabil eta. Bizikleta bat baino ez. Eta atzerago gaur egun etxeak dagozan aldean mendia agertzen jaku.*

*Argazkia 1970 urte aldera dago atarata.*

*Aldatuta dagoz, geroztik, Otxarkoagako bazterrak!*

*Otxarkoagako AFOk itzizako argazkia*



▶ Iritzia .....	.4	▶ Inkesta .....	.19
▶ Otxarkoagak 40 urte .....	.5	▶ Mahatsberriak .....	.20
▶ Begoña eta Euskerea .....	.8	▶ Hezkuntza .....	.24
▶ Taldea: Bizigai .....	.10	▶ Mendi Ibilbidea .....	.27
▶ XXI.mendeko guda .....	.12	▶ Bertsolari Txapelketa Nagusia .....	.28
▶ Elkarrizketa: Unai Molinero .....	.15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	.30

Francon bigotie oin dala urtetxu batzuk guretik pasau ei zen ez dakitt norantza, baie nondik etorritte danok dakigule pentsaten dot. Hamen, ikusi ei zeittuzen etziek gustau ez edo, ixen bere, etziek barik txabolak zirien danak, bota azo ein zeittuzen danak ta hango guztidixentzako txabola barridkek ein azo zeittuzen. Hareik etziek, barriz, lehengo txabolak baino asko hobiak ixen ez, baie, tire! Han bixi, hazi ta ibilten ixen direz hainbet lagun hainbet urtien, ta han hainbet gauzatu ein direz urtitan, batzuk polittek, beste batzuk zatarragoak, batzuk handidkek, beste batzuk txikidxegoak. Gehidxenetan ingeruko jente handidxe ta txikidxe hangoakaz asko akordau barik, ta akordau ixen direzenien txarrerako ixen da jeneralien.

Ta Franco ixengo zan ta gure dozuen guztidxe, baie, hareri okurridu ezik, gaur egun ez genduen ezetuko Otxarkoagan moduko auzunerik, ez hango jenterik bere, ta ha bai pena handidxe ixengo zala.

-Baie hi tonto hago gero! Otxarkoagarik ez balego pena? Hango etze zatarrak! Ta hango jendemodue! Dana drogie, makarrak, danak kanpostarrak! Esan bere eittie! Hori auzunie euskaldunon galtzie ixen da. Hor ezin leikek bixi bere ein. Tire gixona! Ni horra bixiten ez ninttikek joango ezta ezta ..... lehenago zubi azpidxen bizi! Ganera, Francok eintte... Hori ein biherko littikek dana bota, edo erre, edo kendu, kendu!

-Hi Santutxukoa haz, ezta? Igarri eitten dok autobusak gitxi daoza.

# GURE BAZTERRAK

## ARTAZURINA KALEAREN ETA ORNILLA OSAGILEAREN KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Artazurina kalea Begoñako eleizateko gaur egungo Txurdinaga aldean dago.

Kale honek Gabriel Arestiren etorbidean dau hasikerea, eta erretiroa hartuta dagozanen egoitzan dau amaiera. Egin-eginean bere, etxe hori Txurdinagako parkearen ondoan dago, Ornilla Osagilearen kalearen ondoan.

Toki-izen honek artoaren aitamena dakarsku gomutara, eta inguru honetan dagozan beste asko legez, aurkintza horretan egozan baserrietako bat agertzen dau.


Beste alde batetik, Ornilla Osagilearen kaleak Zumalakarregi etorbidearen eta Henrike Ibarreta kalearen bidagurutzean dau hasikerea, Pio Baroja eskolatik hurrean, eta Txurdinagako parkea inguratzen dau. Beraren amaiera, barriz, Jesus Galindez etorbideraino heltzen da, Lanbide Heziketako Institutuaren ondoan.

Henrike Ornilla Benito osagile bilbotarra 1907. urtean jaio zan, eta 1975ean hil. Ikasketek Madrigo Unibertsitatean egin zituan, eta hantxe egin eban lizentziatura 1930. urtean, eta doktoregoa 1933an. Izan bere, 1930. urtean, Gorlizko Itsas Osasun-etxeko laguntzaile izentau eben; hango zuzendaria izan zan 1937. urteaz gero. Urte horretatik atzera Gaminizko osasun-etxeko zuzendaria bere bai izan zan. Beraren espezialitateak pediatria, ibiltze-aparatua eta bularreko gaixoa izan ziran.

GOTZON LOBERA REVILLA

## ABUSU ETA SANTA ISABELEKO ZUBIAK

Abusuko zubiak Bilbo eta Arrigorriagako ibarrak lotzen zituen. 1902an egin. Gabriel Rebollo Canalesen proiektua (Segovia, 1871-1941). Bilbo-Durango tranbiaren konpainiaren enkaruz egin, tranbia bera baino 48 ordu beranduago hasi zuten altxatzen. Beranduago auto eta pertsonentzat egokitu zen. 179 metro luzea zen eta Ibaizabal gainetik igarotzeko 35 metroko launa arku zeukan erdian eta beste bina muturretan, azken hauek biribilak eta 19,5 metrokoak.



Ibaia zeharkatzeko bide arteza -perpendikularra- egin beharrean modu oblikuoan egiten zuen. Hennebique patenteaz eraikia, Estatu espainolean zementu armatuaz eginiko lehenengo zubi handia izan zen. 1983ko abuztuaren 26ko uriola handiek eraman zuten.

Santa Isabeleko zubia. 1987. Abusukoaren ordezkari izan zen eta haren bide oblikua ere mantendu zuen. Hiru zulo ditu, 33, 98 eta 33 metrokoak. Hamaika metro zabal da.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur Elkarte

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

**ZUZENDARIA**  
Hektor Ortega  
**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez,  
Joana Etxebarria, Irune Berro, Iratxe Ruiz, Erdoitza Martinez Unai Cuevas

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona eta Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Iñaki Berastegi,  
Joseba Barrenetxea


**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia, Itxaso Pérez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,  
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoetxea,  
Zuriñe Martinez

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**  
1.200



# Otxarkoagaren urtebetetzea

Poligonoaren sorreraren 40. urteurrena ospatu dute urrian

Testua: Itxaso Pérez  
Argazkiak: Iñigo Azkona

**Sastrea EDRO**  
IRUDIA SORTZEN DUGU BILBO  
Santutxu kalea, 46  
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoeb.com/Spedro  
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navegala.com  
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA GERMÁN BERGARETXE**  
GABRIEL RESTI, 30 4. G TXURDINAGA  
94 412 82 74

**CYBER TIME**  
Ordenagailua gurea da ideiak, zureak  
Sarean, jolasak Internet Inprimaketa Eskanerro Datu grabaketak...  
Aita Pernet, 1 Tfnoa/faxa: 94 459 74 06  
48004 Santutxu E-mail: cyber-time.euskalnet.net  
Bilbo http://www.cyber-time.euskalnet.net



Ali Aurrekoetxea Begoñako euskerea darabilen zaharretariko da. Justu eguneko bertso saioetan edo Tetuane bere baserri inguruko landan ikusi geinke paseoan makulutxuagaz. Bere bizitza luzeko hainbat pasarte kontau deuskuz eta euretarikoak Espainako gerran bizitako hiru urte latzak daukaz gehien akorduen.

# Begoña eta Euskerea

## Ali Aurrekoetxea, Agirletako pandereterue

Testua eta argazkiak: Koldo Urrutikoetxea

Z  
A  
R  
A  
N  
E  
Ñ  
O  
G  
O  
Z

**Zu izatez zein baserritakoa zara?**

Agirleta, txokolatero de Agirleta.

**Baserriko beharrak eze-gutu dozuz ezta?**

Bai, baia nik fabrikean egin dot behar gero e? Etxebarrian urte asko, hogetamazortzi urte Etxebarrian.

**Soloa baino hobea hori, fabrika.**

Bai sasoi horretan ademas, behar asko eta ezebez koiu bez. Behar ta behar eta ezebez baserrie saldu in zen dana, beste aldekoana eta erdi bana egon zan, etxe zaharra bota eta txalea in euren..

**Gerran ibilita zauz ezta?**

Gerra duztien ibilita nau ni. Prisioneru plaza de torosera, Santanderrera, hiru egunean jan barik gero handik Santoñara, Santoñan bost hilabete eta ostabere frentera, nik gerrea akabaten zala han baia Logroñora, Logroñotik Zaragozara, Teruel, Ebro eta Bartzelonara artean.

**Zein konpainian edo egon zinan?**

Euskadikoa?, Brigada Mixto de Ingenieros. Otxandion egon ginen eta esan euskuen "quién sabe manejar el ganado?". Eta muleru, muleru ibili nintzen hor.


**Mandoakaz zer egiten zenduen ba?**

Materiala eroan frentera eta holan, konboiak eta.

**Frentea non egon zan zure denporatan?**

Eibarren, Kalamuan, gero Markinetik eta Gorbeara.

**Hor nor eze-gutu zenduan?**



Nire kapitana, San Sebastianekoa zan, Peña. Batallón Otxandianon egon zan komandante Begoña eta batallón Otxandiano prisionero jausi zen Bilbon, hor jausi ziren danak,

**Begoñekorik edo, ezetu zenduan?**

Begoñeko asko, Goiri eta Madalenon ondoan dekonak... Pedro, hori tenientea zen gerra denporan. Basilio Aurrekoetxea.

**Hiltzen hainbat ikusiko zenduzan ezta?**

Jesus! Montoiz! Ya lo creo. Lagunek, geugaz ibili zirenak bai.


**Eta gero atzeraka atzeraka Santanderrera?**

Asturiaseraino. Han italiaraino sartu ziren. Kopaute egon zen eta prisioneru danak. Jentea atzerantza, atzerantza, egunian egunian,

atzerantza. Eibarren hasi eta Asturiaseraino. Karrantzan egon ginen hainbat denporan, frentea Karrantzan ermita de San Roke, Villaverde de Truzioz eta Karrantzan, artilleriek mulo bat hil euskun. Gerra duztien eta suerte handie euki dot nik e? suerte terriblea, bala bat besoan Kalahorra ondoan. Egon nintzen eridute Nabarran Elizondon, frailen komentua dago han atzean.

**Eta zelan ba hara?**

Ebron eridute jausi nintzen eta hara ekarri eustien, Lekarozera frailen komentura. Madrilen akabau zen gerrea. Egunk handiena orduntxe ezetu neuen nik, gerrea akabau zenean, hiru urtean kristonak pasaute!



**Agirletako baserrian ze urterarte bizi izan zinen?**

Ahalik eta fabrikean sartu arte, 41 artean edo gero ezkondu nintzen.

Saldu in zan gero hori etsaldea, alde bietako familina zan lez. Oin txaleak inde dauz

**Eskolan eta non zagoz ibilite?**

Begoñan

**Zure denporatako maisu-maistrek nortzuk ziren?**

Don Antonio Mendibil, don Martín, mankue zan.

**Eta handik nora?**

Gero beharrian pinuen zuloak iten eta holan, pinuek sartzen. Koinetu bat ibili zan fabrikean eta esan eustan quires venirte a la fabrica? Eta ra!, sartu eustien.

**Etxebarrian zure ofizioa zein zen?**

Gasistia nintzen labean. Neuk manejanen neun labe baten kontue. Sue eta martxak burrine berotuteko.

**Gogorran zan behar hori?**

Ez, treneak manejetan, krobingoak eta mandotan. Beti errelebotan gosez, arrastin edo gaubean.

**Ezkondu eta hona etorri zinen, andrearen baserri-ra?**

Bai, gero etxe hau erre in zen konpleto,

**Noz izan zan hori?**

Igual izengo dire hirurogei urte edo, patintxu bat egon zen metro bi edo ur apurtxu bet euki eun baia, orduen urik ez eta total erre zen, gero anaiegaz bizi neuen hor bean. Etxebarriako jefepersonalak deitu eusten ofizinerara, Santutxuko barriada egiten ibili zen Etxebarria, Etxebarria fabrikena zan hori, eta jefek esan eusten "Si quiere usted tiene piso en Santutxu" eta orduen tailtetue botaten ibili ginen bertan behar iten egoteko eta behiek eta... "Ya le diré" esan neutsen eta ez nintzen gehiago joan.

**Ganadue eta euki zenduen baserrian ezta?**

"EGUNIK HANDIENA ORDUNTXE EZETU NEUEN NIK, GERREA AKABAU ZENEAN, HIRU URTEAN KRISTONAK PASAUTE!"

Behi bi eta txahalak eta lotu barik erreleboan fabrikean eta ganadue eta soloan, beti holantxe, beharrian beti.

**Kopla edo kantu zaharrak ezetuten dozuz?**


Ni pandereterue izen naz eta ondo, baie oin haxe be ezin dot ja. Durangon egon nintzen panderoa jotzen plazan. Nik ostean panderoa ez dot bildurrik euki.

**Gerra denporatan eta, erderaz eta ondo egiten zenduen?**

Hemen euskerea gitxi iten izan da. Erderea gehiago iten zen euskerea baino. Lehen galdu in zen euskera konplemente. Oin gehiago iten da kasik lehen baino, baie oin be euskera barrie ez dakigu.

**Zuk ederto dakizu**

Lehengoa bai. Nik Zamudiokoakaz por ejemplo, edo Lezamakoakaz, konbersaziñoa ondo baie barriekaz ezin dot konbersaziñoan, hortxe dago ba!




E  
G  
O  
Z  
E  
R  
A  
N  
E  
Ñ  
O  
G  
O  
Z

# Bizigai, produktu ekologikoen kontsumitzaile elkarte

Ekoizle biologikoen eta produktu horien erosleen arteko topaleku izan gura du

Testua: Iratxe Ruiz  
Argazkiak: Bizigai



**Azken bolada honetan, produktu biologiko edo ekologikoak modan jarri dira. Behi eroen asuntza eta egunero kontsumitzen ditugun jakien konposaketa eta manipulazio kimikoak ardura zaizkigu. Arduratu edo gutxienez kezkatzen gaitu, baina batzuei askoz gehiago. Honen froga argia Bilbo osoan eta Mahatserrian hedatuz doazen bio-dendak izango ziren. Zertan datzan holako denda bat?**

Santutxuko Santa Luzia kalean (Basarrate inguruetan), jaten dituzten elikagaien inguruan arduratsu jokatzeko duten kontsumitzaile elkarte dugu. Elkartearen esanetan, "gure lurraren ekoizle biologikoen eta hauek ekoiztutako produktuen

kontsumitzaileen topalekua izateko asmoz osatu zen elkarte, aberasteko asmo barik".

'Bizigai' elkarte duela sei bat urte osatu zen baina azken bi urteak eman dituzte soilik Mahatserrian. Egun, 125 kide daude elkartean. Kide

guztiak dira proiekturako ezinbestekoak eta kideak diren heinean betebeharreko eskubideak eta eginbeharrak dituzte. Elkartearen funtzionamendua asanblarioa da, beraz danok dute hitza eta boto eskubidea erabakiak hartzerakoan.

Partaide guztiek zelan edo halan proiektuan parte hartu behar dute: produktuen informazioa hedatuz barne komunikazioan, lokaleko garbiketa lanak egiten, biltegiaren inbentarioa osatuz, informatika kudeaketan, produktuen kalitate kontrola gainbegiratzuz, hemerroteka edota astialdirako planak antolatuz... Beti dago zer eginik.

## DENDA ERE

Egoitzan mota guztietako jakiak erosteko aukera dago: baraz-



Santa Luzia kaleko lokala

## ZAZPI ARDATZ

'Bizigai'ren helburu nagusia kontsumo ekologikoa sustatzea da, produkzioa ingurugiroarekiko oreka gordetzen duen prozesua izan dadin, kontsumitzaileen ondorengo jokaerak garatuz:

- bertoko produktuen kontsumoa (garraioa ahalik eta gehien murriztuz)
- elikagai freskoen kontsumoa
- sasoiko eta bihi osoko elikagaien kontsumoa
- kontserbatzaile eta gehigarri artifizialek gabeko produktuak
- ontziak murriztea, berrerabiltzea
- bitartekariak kentzea
- kontsumitzaile eta nekazarien arteko harreman zuzen bat ziurtatzea.

Proiektuarekin bat egin nahi baduzu edo 'Bizigai' ezagutu, hona hemen helbidea:

Santa Luzia, 6 Santutxu

Tel: 94 411 28 99.

**Ordutegia:** Asteartea/ Asteazken eta Ostiraletan  
12-14 eta 17-21tara.

kiak, fruituak, lekak, pasta, haragia, ezti, gazta, txokolatea,... baita jantziak ere. Gainera, ingurugiroaren gaineko tailerrak eta hitzaldiak egiteko leku ezin hobea daukate euren lokalean bertan. Elkarteko kide izanda ere ez zaude erosketak egitera behartuta. Proiektuari babesa ematen badiozu kide izan zaitezke, laguntza ekonomikoarekin, hileroko kuota ordainduz.

Gai honen inguruan aipatu behar dugu kontsumitzaile elkarte honek ez duela inongo diru laguntza ezta subentziorik ere, eta bazkide bakoitzak hileroko ordaintzen dituen 700 pezetaren sostenguekin doala aurrera.


Lokalera ohiko erosketak egitera joanez gero, emate-agiria edo albarana bete behar duzu zure datu guztiekin. Erosketak amaitzean emate agiriaren kopia bat 'Bizigain' utzi beharko duzu, beste kopia zuk gordez. Agiri guzti hauek betetzea gomendagarria da, erosketak banku bidez kobratzen baitira hileroko.

Gainera elkartearen onurarako lagungarriak diren zenbait portaera izatea komeniko litzateke; bertara hurbiltzen zaren bakoitzean, txarto dagoen frutarik edo barazkirik ikusten baduzu, 'compost' ontzira bota beharko duzu, esaterako. Edota kutxa hutsak aurkitzean kendu eta bere tokian berria jarriko duzu.



zeharo aldatuta nabari da. Mahatserria kokatzen den hiriak bere izena Binbao Laden ordeztu du, eta Barakaldok ordea, Barakabul du izena. Gernikari Gernikistan deitu dio, Donostiari San Sebastaliban, Hondarribiari Fuente rabiya moro eta Euskal Autonomi Erkidegoari orokorrean Euskadi hurbila.

Alderaketa hauek hiperbole hutsa izatetik geroz eta urrunago daude; izan ere, Euskal Herrian oinarri duen ETA erakundea Al Qaeda erakundearekin batera EEBBetako atzerriko talde terroristen zerrendaren barne dago. Eta bi hauekin batera, aski ezagunak diren ondorengoak: FARC, HAMAS, Jihad Islamikoa, PKK (Kurdistango langileen alderdia),... Zerrenda honetatik kanpo geratu dira, ordea, Japoniako Ejertzito Gorria eta Tupac Amaru mugimendu iraultzailea.



Internet bera susmopean gelditu da irailaren 11ko erasoaren ostean. EEBBetako agintariak neurri estuagoak jarri nahi dute webguneak eta mezu elektronikoak kontrolpean eukitzeko. Asmo horien beste muturrean, Estatu Batuetako bakezale eta globalizazioaren aurkako taldeak interneten bitartez gerraren kontrako aldarria hedatzen ari dira. Atxikimenduak biltzeari ere ekin diote eta ahalegin hori gure bazterretara ere heldu da, beti ere sarearen bidez. Honez gero ehundaka internauta euskaldunak euren elkartasun mezuak bidalita daude.

Bitxikeriak eta txisteak "New Yorken gaur egun ez dago taxi zerbitzurik, hegazkinak zuzenean bulegoan bertan utziko zaitu"- ez dira soilik interneten aurkitzen. Mendekuak eta EEBBetan nagusi den dirua egitearen filosofiak bultzaturik, atentatuekin lotutako hainbat produktu merkaturatzea zilegi izan da. American Wins enpresak esaterako, Bin Ladenen irudia duen komuneko papera jaurti du merkatura. Paper honek aberats saudiarren lau irudi desberdin ditu irailaren hamaikako atentatuei erreferentzia egiten dieten hitz jokoez lagundurik. Baina paper berezi honetaz gain, badira estatu-batuarrek beren ohiko dendetan topa ditzaketen beste mila

### OSABA BIN ETA OSABA SAM

Euskal Herriko kulturak ere ez dio ihes egin gaiari, jakina. Gara egunkariko Tasioren tira batek "Akistan, Paizekenostan, ..." - bazterrak harrotu ditu interneten. Mezu elektronikoek hara eta hona eraman dute lau haizetara zabalduaz. Haren arrakastaren lekuko galanta dugu telebista eta irrati espainoletan ere atera izana.

Eta "Putz" aldizkariaren urria-azaroako zenbakiko azalean Bin Laden agertzen zaigu, fraide frantziskotarrak jantzita atzean Fagor-en zepelina Arantzazuko komentuko dorrearen kontra jotzeko zorian dagoela. Barruko orrietan, "Osaba Bin"-en profeziak dakartzela Putzek. Bin Ladenekin "Non dago Wally" joko ezaguna egokituta ere eskaintzen dute eta "kale inkesta" ataleko herritar galdera erantzuleetako bat Osama bera dugu.

Azkenik, ez da falta izan Guggenheimen kontrako eraso irudikatu duen artistarik. Interneten zabaldu-tako beste irudi batek "bigarren hegazkinak museoaren auka jo baino bigarrena bat lehenagoko unea" eskaini digu, Bilbo ere New Yorken pare egon daitekeela frogatzeko-edo. Bilbo diogu? Euskal Herria osoa! Ez zigun ba Rajoy ministro orojakitunak esan Cascanten atxilotutako musulman bi Bin Ladenen koadrilakideak zirela!

gauza. Irailaren hamaikako gertakizunetan oinarrituriko golf pilotak, barruko arropak, pegatinak, zarrailuak, egutegiak, tazak, eta jostailuak, besteak beste. Hauek "Dorre bikiak gogoratu" edo "Terrorismoari gerra" esapideak txertatuak dituzte.

Hala ere, hau guztiaren atzean ez daude negozio hutsaren hatzaparrak soilik. American Wins enpresak adibidez, metatutako diruaren zati bat biktimen sendiei emango dietela diote. Bitartean, Afganistanen papera jaurtiko dutela diote "terrorismoa garbitzeko".

### AFGANISTANGO EMAKUMEAK

Baina EEBBetan merkaturatzen diren argelkerietatik urrun eta Bin Ladenek eta talibanek aldarrikatzen dutenetik are urrunago, RAWA erakundea dago. Afganistango emakume iraultzaileen mugimendua da hau. 1977an sortu zen eta hogeita lau urte hauetan bai Afganistanen baita erbesteren ere proiektu hezitzaileak eta osasun proiektuak garatu dituzte. RAWA erakundeko militanteetako batzuk atentatuen bitartez hil dituzte. Beraien artean, Meena; RAWAren fundatzailea.

Egun bi mila bat emakumek osatzen dute RAWA eta hauetariko %80ak ezkutuko ekintzak bideratzen ditu Afganistanen. Beraietariko askok burka jantzen dute nahiz eta Afganistan ez den beste herrialde batean egon. Burka beraien kulturaren parte da eta gustuko dute. Berria da ordea, burka derrigorrez jantzi behar izatea eta hori da gaitzesten dutena beren eskubideen aurka egiten duen inposaketa delako. Hala ere, mugimendu honen gainean gehiago jakin nahi izanez gero, beren web orrira sartzea besterik ez duzue: [www.rawa.org](http://www.rawa.org).

**e**  
**i**  
**k**  
**a**  
**r**  
**r**  
**i**  
**z**  
**k**  
**e**  
**t**  
**a**

# GERRARI EZ!

Paremos la agresión imperialista

لا للحرب  
لنضع حد للإعتداء الأمريكي

**MANIFESTAZIOA**

ostirala, urriak 19  
19.30etan  
Zabalburu Plaza, Bilbo

# GERRARI EZ!

Paremos la agresión imperialista

لا للحرب  
حد للإعتداء الأمريكي

**MANIFESTAZIOA**

ostirala, urriak 19  
19.30etan  
19.30etan  
Plaza


## Unai Molinero

### Azken intsumitu preso

*Urriaren 9an bete zuen bere kondena eta geroztik etxean dago. Armada espainoleko agintari militarrez osatutako Gerra Kontseiluak bi urte eta sei hilabeteko zigorra ezarri zion desertore izateagatik. Hogeita hamar urteko gazte hori 1999ko azaroaren amaieran Alcaláko espetxe militarrean sartu zuten. Bere delitua? Zerbitzu militarrean egonik kuarteletik alde egitea, "Intsumisioa kuarteletan" kanpainaren barruan. Derrigorrezko soldaduzka eta, berarekin batera, intsumisioa desagertzeaz dagoela, Unai Molinero azken intsumitu presoetako bat dugu.*

*Testua: Hektor Ortega  
Argazkiak: Iñigo Azkona*





### Noiztik zara Kontzientzia Eragozleen Mogimenduko (MOC-KEM) kide?

1997an hasi nintzen KEMen. Artea banuen historia honetan sartzeko asmoa. Garai hartan kuarteletan intsumisioa egiteaz hitz egiten hasiak ziren, Gobernuak intsumituentzako kartzela zigorra kendu eta errepresio "ikusezina" -inhabilitazioak ezarri nahi zuen. Hein batean, kuarteletako intsumisio kanpaina hori Armadak oraindik ere zapaltzen gaituela begi bistan jartzeko asmatu zen. Nik KEMen sartu orduko banuen kanpaina horretan parte hartzeko asmoa.

**KEMen sartu zinenean zein zen zure egoera "militarra"?** Luzapena amaitzeaz neukan eta handik gutxira, beraz, Armadara joateko deia jaso behar nuen.

**Nola egiten da gero kanpainaren diseinua, nortzuek hartuko duten parte erabakia...?**

Jakina, azken erabakia zu zeuk hartzen duzu. Zure bizitzako une horretan pentsatzen duzu egin ahal duzula eta zeregin horri eutsi ahal diozula. Bagenekien jakin epaiketak eta kartzela zigorrak etorriko zirena. Kanpainari dagokionez, KEMek batzarren bidez egiten du lan. Estatu osoko taldeek erabakia

hartu behar dute: egingo den ala ez, zelan egin eta abar... Asanbladaren bidez funtzionatzen dugu.

**Bizkaian zenbat zeundeten desertore izateko prest?** Bost.

**Azkenean Armadara joateko deia heldu zitzaizun eta koartelera joan zinen...**

Bai, jakina, deitzen zaituztenean joan behar duzu, zure benetakoa asmoa ezkutuan daramazula, ilea moztu behar badizute utzi moztu eta listo... Ni Arakara (Araba) deitu ninduten.

**Eta zenbat denbora egin zenuen barruan?**

Bost ordu. Asmoa da hara zoazenean paperak betetzea Armada espainoleko kidea zarela onartuaz. Behin hori eginda, desertzio delitua leporatu ahal dizute.

**Zurekin batera joan ziren beste mutilek bazeukaten zeure asmoaren berri?**

Ez, han inork ere ez zekien. Baina une hartan ez nuen ezer egin. Behin paperak firmatuta, Armadako kide bihurtuta, gaua etxean emateko baimena ematen dizute eta bazoaz. Hor amaitu zen nirea. Biharamunean ez nintzen koartelera agertu. Beste intsumitu batzuek, oster, ez dute pase hori lortzerik

izan eta hogeit bat egun eman behar izan dituzte kuarteletan etxera joan aurretik.

**Beraz, kuartelean zauden bitartean ez duzu aldarrikapenik egiten...**

Ez, ez. Bakarrik momentu txarra pasatu eta igual apur bat paranoiko ibil zaitezke pentsatuta militarrek enteratuko ote ziren, ez naute ateratzen utziko...

**Eta gero zuek zeozer egiten duzue?**

Geuk jendaurrean aurkezpen publikoa egiten dugu, komunikabide eta militarren aurrean...

**Eta militarren erantzuna zein da?**

Etxera deitu zuten jakiteko nirekin zer pasatu zen. Aita eta amari nire berri ez zutela erantzuteko esan nien. Gero militarrek hogeit egun pasatzen utzi ohi dute eta ostean "iheslari" edo "desertore"tzat jotzen zaituzte. Delitua bi motakoa izan liteke: zure postua utzi izana edo Armada utzi izana. Orduan zu bilatzeko eta atxilotzeko agindua ematen du epaile militarrek eta epaitegian agertzeko agindua bidaltzen dizute etxera. Niri Iruñeko epaile militarrek deitu ninduen.

**Bizkaiko bostok batera egin zenuten?**

Ez. 1997an desertore bat egon zen, Javier Gómez. 1998an hiruk egin genuen: Ignacio Royo Prieto, Alberto Estefanía eta hirurok. Aurkezpena batera egin genuen. Eta azkena, Javier Rodríguez Hernandez, 1999koa zen. Gu hirurok Mungiako koartelera joan ginen prentsarekin eta ate aurrean uniforme erantzi eta mezu antimilitaristez betetako kamisetak erakutsi genituen...

**Eta gero Armadaren prozesu judiziala dator, ezta?**

Bai. Nirea kasu tipikoa izan zen. Epailearen aurrea joan nintzen eta nire betebeharra kuartelean egotea izanik bertan ez nengoela esan zidan eta ea bertara itzuliko nintzen...

**Galdetu zizun zergatik ez zinen joan?**

Bai, bai. Guk txapa politikoa aurretik prestatuta eramaten dugu eta hasten zarenean berehala moztu dizu. Gainera, ni azaldu orduko aurretik beste intsumitu batena entzunda zegoen eta, beraz, bazeukan gure berri. Eta gero zuk zerbitzu militarra itzuliko zarela badiozu bakarrik "postua utzi izana" leporatzen dizute: hiru eta hamar hilabete bitarteko zigorrarekin. Guk bezala, itzultzeko asmorik txikiena ere ez daukazula esanez gero, delitua desertzioa da...

**Eta zenbateko zigorra du?** Urte bi eta sei urte bitarteko zigorra dauka, kartzela militarrean.

**Hori epaile aurreko lehenengo agerpena baino ez da. Gero Gerra Kontseilua dator...**

Bai. Gero fiskalak eskaria egiten du eta azkenean bai, Gerra Kontseilura joan behar duzu. Nire kasuan A Coruña izan zen, eta hortik ateratzen da zure kondena. Niretzat fiskalak lau urte eskatu zituen eta azkenean urte bi eta sei hilabeteko zigorra ezarri zidaten.

**Oso gogorra ematen du Gerra Kontseilu baten aurrean egon beharrak...**

Guk aurretik ondo prestatu genuen. Guk epaiketa politikoak egiten genituen, ez juridikoak. Hara ez goaz marroia kentzera baizik eta jarrera hori zergatik hartu dugun azaltzera: gurea

ez dela pertsona baten jokaera, talde jokaera baizik, Armada guztien desagerpenaren alde gaudela, bortizkeria eta gerrak ez direla arazoak konpontzeko modua... Zeu hara zoazenean helburu argi batekin zoaz: zeure jarreraren arazoak zeintzuk diren argi eta garbi esatea alegia.

**Graduazio handiko militar guzti horien aurrean egon beharrak inpresioa egin zintuen?**

Eurak hartu zuten guk baino inpresio handiagoa. Nik banekien zer etorriko zitzaidan. Baina eurek ikusten dituzte euren aurrean ideiak tinko defendatzen dituzten gazte batzuek, buru gainean kartzelaren mehatxua euki arren. Hain modu zuzenean haiei aurpegia ematean harritzen dira.

**Behin zigorra ezagututa atxilotu zintuzten?**

Bi hilabete beranduago sententzia atera zuten eta ondoren kartzelara sartzeko agindua dator. Neu ez nintzen agindua jasotzera joan, jakina. Gero bilatzeko eta atxilotzeko agindua ematen dute. Aurkezpen publikoa egin nahi genuen.

**Eta non izan zen?**

Aurkezpen bi egin genituen, Bizkaiko Gobernu militarren aurrean biak ala biak. Lehenengoan ez ninduten atxilotu nahi izan, agindua ez ei zelako inondik agertzen. Bigarrenean gure abokatuak eraman zuen agindua eta ertzainei eman zien.

**Eta hortik nora?**

Ertzaintzaren polizia-etxera eraman ninduten, handik gau eta eguneko epaitegira eta azkenean kartzelara, Alcaláko espetxe militarra.

**Eta zelako sarrera egin zenuen?**

Kartzelara joatean unerik txarrenak lehenak dira. Sartzean ez dakizu non zauden, zer topatuko duzun... Baina ni joan orduko beste lau intsumitu preso zeuden eta eurak arduratu ziren ongi etorriaz.

**Zein jende modurekin zaudete han?**

Denetarik dago: militarrek, legionarioak, soldaduzkako gazteak, guardia zibilak, ....

**GAlekoak ere han daude ezta?**

Bai, baina kartzela barruan banaketa dago jende arruntaren, subofizialen eta ofizialen artean. Orduan Galindorekin ez ginen elkartzten. Behin botikinean topatu nuen baina besterik ez. Jende asko dago soldaduak direnak eta asteburua parrandan emategatik kuarteletik joan direnak. Gero hilabete batzuetako zigorra ezartzen diete. Eta ez ziren falta drogekin trafikatzeko ibilitakoak.

**Sartzerakoan bigarren graduari jarri zintuzten, ezta?**

Bai, holan da. Gauak txaboloan ematen genituen, banaka, eta goizean gosaltzera joan, garbiketak egin eta gero patio ordu luzeak genituen. Bazkari eta afari orduetan izan ezik, gainerakoetan bageneukan nahi genuena egiterik. Gainera intsumituak elkarrekin geunden.

**Eta ze giro zegoen?**

Kondena luze egiten zaizu. Guk bagenekien bigarren graduari zazpi hilabete eman behar genituela. Gakoa izaten da orduak zeozertan ematea: kirola, irakurtzea, ikasketak, ... Nik Fisika ikasteko aprobetxatu nuen. Eta gero bisitak oso garrantzitsuak ziren. Arratsaldean izaten ziren eta horrela zailagoa zen asperetzea.

**Bisitak zelan zeuden araututa?**

Erregimena kartzela zibilena baino askoz ere zabalagoa da. Bisitak eguneroko euki ahal dituzu, gehienez lau lagun eguneko eta denetara bost orduz egon zaitezke. Gainera, bis a bis aretoak ziren, jesarleku onekin, ez lokutorio kaxkar tipiko horiek.

**Gogor egin zitzaizun espetxea?**

Gutxi gora behera denok bide berbera egin genuen: lehenen-



go hiru-lau hilabeteak nahikoa erraz igarotzen dira, sartu berria zaudelako eta oraindik ez zara errutinaren morroi. Bosgarren hilabetearen beharadako dator, aspertuta zaudelako. Eta azken bietan irteketan zaudenez berpizten zara...

**Kondenaren lehen laurdena betetakoan hirugarren gradua ematen dizute. Ze bizimodua da hori?**

Kartzelara lo egitera baino ez. Ikasten edo lan egiten zaudela erakusten baduzu, goizeko zazpi eta erdietan atera zaitezke. Niri Madrileko liburutegi batekoek, Traficantes de Sueños-ekoek, egin zidaten papera eta horrekin ateratzen nintzen. Gero lorazain ibili nintzen goizetan lanean eta arratsaldetan atsedena edo bestela lan politikoa. Horretarako joan ginen ba!

**Eta asteburuak libre?**

Bai. Bilbora etortzeko aukera neukan familia eta lagunekin egoteko. Eta gero sei hilabetearen behin 24 eguneko baimena ematen ziguten.

**Luze egin ote zaizu?**

Laguntzekin errazago egiten da baina badu bere gogortasuna. Hilabete luzeak dira eta zurea ez den toki batean zaude...

**Eta orain zer?**

Lurrera jaisten ari naiz orain. Ea lantxoren bat ateratzen zaidan...

**Zein da zuen borrokaren balorazioa?**

Ona. Niretzat esperientzia interesgarria izan da eta antimilitarismoak bizirik segi dezan lagundu du. Gizarteak ikus dezan

ez gaudela prest gauzak militarrek eta Armadek nahi duten bezala onartzeko. Eta Armadaren profesionalizazioari errepertuez gero, aurtengo amaieran 124.000 soldadu nahi zituzten eta 86.000 baino ez daukate. Kopuru horrekin Armada espainolak ez dauka Armada operatiboa izaterik. Alde horretatik ere, balantze baikorra. Eta azken finean, militarismoaren salaketak ekintza zuzenaren bidez jende askorengan armeei, gerrei eta antzeko kontuei gustu gutxi sortzen du. Armadan soldadu gutxi badago hein batean borroka antilimitaristaren ondorioa da.

**Azken intsumitu presoak izan zarete...**

Bai, nekez egingo da hemendik aurrera intsumisioa orain arte egin den legez, derrigorrezko zerbitzu militarra agortzen dela-

ko. Hori atal itxia da. Baina gure asmoa da Armada guztien desagerpenaren aldeko lanean segitzea. Hori egiteko modua zehaztu beharko da.

**Orain armadak bake mezulariz jantzita agertzen zaizkigu, giza laguntza edonora eramateko prest...**

Intsumisioa eta kontzientzia eragozpena, Estatu espainolean gailurra jo badu ere, nazioarte mailan oso zabaldua daude eta armaden eginkizuna oso kritikatu dago. Euren burua justifikatzeko giza laguntzaren asmatu dute. Orain ez dira gobernu kanpoko erakundeak ezta misiolariak ere jatekoak banatzera doazenak, armadak baizik. Sinesgaitza da. Baina nahi ta nahiez, ez badugu ezer egiten euren kontra, armadekin kolaboratzen dugu. Eta mundu bidezkoagoa nahi badugu, ezin dugu inola ere armadekin kolaboratu.

**Euskal Herrian intsumituen borroka zabalduta du desobediencia zibila. Orain beste esparrutara hedatzen ari da. Zelan ikusten duzu?**

Desobediencia zibila ez da guk asmatutako gauza bat eta ez daukagu haren monopolioa. Gizarte bidezkoago eta bake-tsua lortzeko borroka tresna da. Edonoren esku dago. Bakoitzak nahi duen bezala egin dezake baina beti jakinda desobediencia ez dela bakarrik ez obeditzea: ekintza zuzena ez-bortitza oinarri duen sistema ideologikoarekin lotuta dago. Koherentzia behar da: gerrak eta armadak ezabatu nahi badituzu ezin zara bortizkeriaz baliatu.

## GALDERA LABURRAK

**Abestia:** Art Blacky jazz bateriajolea.

**Liburua:** Orain Marvin Harris antropologoarenak irakurtzen ditut

**Janaria:** Begetarianoa naiz. Okelik gabeko edozer.

**Film bat:** Schrenk.

**Toki bat:** Segun zertarako.

**Mendia ala hondartza:** Mendia.

# Badakizu zenbat pezeta diren hogeita hamar euro?



**GARIKOITZ  
(ASTRABUDUA)**

Ez, ideiarik ez. Ez dakit. Ez naiz preokupatu. Egin, egin beharko dut.




**GARBIÑE  
(SANTUTXU)**

Ez. Kalkuladora behar dut. Bi mila eta bostehun pezeta, uste dut.




**NAGORE  
(BEGOÑA)**

Hogeita hamar euro? Egia esanda, ez.



**UNAI  
(SANTUTXU)**

(Erantzun baino lehen kalkulagailua ateratzen du) Bost mila pela.



**MIKEL  
(SANTUTXU)**

Ez, ideiarik ez. Oraindik ez naiz horretan jarri.



**MARIJE  
(SUKARRIETA)**

Bi mila pezeta eta zeozer gehiago izango dira. Oindino ez dot jakin hori zelan dan. Baina badator...



**ANDER  
(SANTUTXU)**

Sei mila pela edo...

## Bilboko Udalak Isozakik Uribitarterako diseinatutako dorreak geldiarazi ditu

EAJ-EA eta PSOE ez beste alderdi guztiak auzoen eskarien alde agertu dira

Bilboko Udalak ez du onartu Uribitarteko gordailu zaharreko orubean egin nahi dituzten 400 etxebizitzaren gehetasun azterketa. Urriaren 25eko udal bilkura ósoak ezetza eman zion Arata Isozaki arkitekto japoniarraren proiektuari. Eta etxe-orratzak geldiarazteaz gain, Iñaki Azkuna alkatearen gobernu taldea

Urriaren 25ko udal osoko bilkura ez zaió Iñaki Azkuna alkateari errez ahaztuko. Ezta Hirigintza zinegotzi Ibon Aresori ere. Egun horretako batzarrean azken urteotako hirigintza proiekturik kritikatuenetako baten porrota ikusi zuten. Antzinako Depósito Franco zenaren orubean 400 etxebizitzako etxe-orratzak egiteko proiektua, hain zuzen, Vizcaina de Edificaciones enpresaren eskutik.

Egun hartako udal batzarrak Arata Isozaki arkitekto ospetsuak eginiko gehetasun-azterketaren gainean erabaki behar zuen. Artean PP, Batasuna eta IU-EB udal taldeak agertuta zeuden proiektuaren kontra. EAJ, EA eta PSOE, ostera, dorrean bultzatzaile aritu dira hasierahasieratik. Sorpresa Jose María Gorordoren taldearen eskutik heldu zen. Artean ICV-EHEk Uribitarteko plana babestu bazuen ere, urriaren 25eko batzarrean aurkako bozka eman zuen.

Jose María Gorordok berak hartu zuen hitza batzarrean gaia mahai gainean gelditu zedin eskatzeko, "auzoak eginiko alegazioak sakonago aztertzeko beta izan dezagun". Hirigintza zinegotzia Ibon Aresoren erantzunak, ostera, ez zuen horretarako biderik eman. "Azterketarako garaia pasatuta dago, orain erabakiak hartzeko ordua da", argitu zuen.

Esan eta egin. Erabakiak hartu behar ziren eta, denen harridurarako, Arata Isozakiaren proiektua babesik gabe gelditu zen. EAJ, EA eta PSOEren botoak ez ziren nahikoa izan PP, Batasuna, ICV eta IU-EBren aurrean.

Bozketa egin eta gero alderdi politikoen erreakzioak berehalakoak izan ziren. Kasu askotan Uribitarteko proiektua albo batera utzi eta Iñaki Azkuna alkate jeltzailearen udal gobernu taldeko barneko krisia nabarmendu zen. Ibon Aresok berak ere "leialtasun eza" leporatu zion ICVri. Jose María Gorordok, bere aldetik, honako hau erantzun zuen: "Azkuna erratu da, nabarmen gainera".

### AUZOAK ETA ALDERDIAK

Uribitarteko dorreen proiektuak eztabaida eta kritika la-

ere dardarka utzi zuten. Izan ere, oposizioko PP, Batasuna eta IU-EB ez ezik, gobernu-kide den ICV-EHEk ere babesu kendu die Isozakiaren dorreei. Abandoko eta Begoñabarrako auzoak proiektua bertan behera uzteko eskatzen dihardute eta protestez gain auzitegirako bidea ere hartuta daude honez gero.



tzak eragin ditu hasieratik bertatik. Izan ere, Bilboko Udalak 1989 urte aldean baimendutako espekulazio operazio baten ondorioa da. Orduan negozioak porrot egin zuen eta Uribitarteko gordailu zaharrean hasitako lanek hamar urte eman dituzte geldirik, noiz amaituko zain.

Operazio hartan kaltetutakoek sarritan eskatu diote Udalarari orube horren kalifikazioa aldatzeko bertan etxebizitzak eraikitzeko baimena eman dezan. Urteetan ezetz erantzun eta gero, Iñaki Azkuna alkate jarri berriak Arata Isozakiaren proiektua onartu zuen. 400 etxebizitzak egiteko hamaika etxe-orratza egiteko proiektua zen. Dorreik garaienak 80 metro altu izango ziren, ondo-ondoan daukaten Albia eraikina baina 16 metro garaiago.

Udal taldeen babesaz hasi zuen bere ibilbidea. EH - gaur egun Batasuna- eta IU-EB izan ziren aurka azaldu ziren bakarrak. Geroago, PP ere gurdi horretatik tiraka egiteari utzi eta auzoen alde agertu zen. Ezin ahaztu Abandoko lehen indar politikoa dela gaur egun. ICVren etorrerarekin nagusi izan daitezke Udaletxean proiektuaren aurkariak.

Eta asmo horren berri izandakoan berehala inguruetako auzokideak protestaka hasi ziren. Hala Abando nola Begoñabarrako auzokideak dira proiektuaren kontra aritu direnak. Oraindik ere ikus daitezke etxe askotako leiho eta balkoiatan dorreen kontrako pankartak eta kartelak. Gainerako bideak ebakita ikustean, auzitegira jo zuten.

## Sorgintxulo gaztetxeak euskarazko zine emanaldiak egingo ditu azaroa eta abenduan

Bilbo mailan alor horretako erreferentzia izan nahi du Santutxuko lokal okupatuak

Sorgintxulo gaztetxeak zazpi pelikula eskainiko ditu euskaraz azaroa eta abenduan. Euskarazko filmen programazio berri horrek segida ematen dio uda aurretik hasitako bideari eta Bilbo mailan alor horretan dagon urritasunari aurpegia eman ez ezik hiri-buruko erreferentzia gune bihurtu nahi dute Santutxuko gazteok euren lokala.

"Euskara jalgi hadi zinemara" da euskarazko filmen programazioari Sorgintxuloko gazteek jarri dioten izenburua. Uda aurretik ekin zioten bide horri baina oraingoan asmoak askoz ere handiagoak dira. Euren hitzetan, "helburu Santutxun ez ezik Bilbo mailan arlo honetan erreferentzia izatea jarri dugu". Samurra izan ez dela izango ondotxo dakite gazteok eta horregatik deialdia egin dute proiektuan parte hartzeko "pasiboki emanaldietan parte hartuz edota aktiboki dinamika honetan barnera sartuz".

Gaur egun Bilbon zinema bakarra da euskarazko filmen programazio sendoa daukana: Deustuko Avenidas. Bertan goizez eta eguerdiz pelikulak euskaraz ipintzen dituzte, arratsaldeak eta gauak erdarazko produkzioetarako gordeta dauden artean. Hortaz gain, toki gutxitan eskaintzen da noiz edo noiz euskarazko filmik.

### LEHENENGOAN, HITZALDIA

"Euskara jalgi hadi zinemara" programazioa azaroaren 9an hasiko da. Ostiral horretan, arratsaldeko zazpitan euskaraz filmatutako lehenengo pelikuletako bat botako dute: "Ehun Metro", Ramon Saizarbitoriaren nobela ezaguna oinarritzat hartu zuen filma. Pelikula ikusitakoan, hitzaldia egingo dute. "Euskal zinema, euskara eta zinema" gaia jarrita, Patxi Bisquert aktorea eta Jose Antonio Calzada itzultzailea mintzatuko dira, ikusleekin batera jakina.

Zinema programazioaren hurrengo emanaldi guztiak ordutegi bikoitza eukiko dute. Batetik, goizeko hamarretan saio bat egingo da. Bestetik, arratsaldeko zortzietan bigarren aldiz eskainiko dira pelikula guztiak. Horrela, "Wanda izeneko arraina" komedia ezaguna goizez eta arratsaldez ikusteko parada egongo da azaroaren 15ean.

Eta horrela segituko da ostegunero. Azaroaren 22an, "Azken Mohikanoa" western ikusgarri eta kitzikagarria



proiektatuko da Sorgintxulo gaztetxean. Eta azaroko emanaldiekin amaitzeko, hilaren 29an "Pecata minuta" izango da eguneko pelikula.

### ABENDUAN BE BAI

Arestian esan legez, "Euskara jalgi hadi zinemara" programazioa abendura ere zabalduko da. Abenduaren 6an, "Legend" pelikula eskainiko da, gainerako guztiak legez goiz eta arratsaldeko ordutegian.

Eta hurrengo ostegunean, abenduaren 13an, euskal zinemaren bazterrak harrotu zituen beste pelikula bat, Koldo Izagirren "Ke arteko egunak". Idazle pasaitarrak bere liburuen bidez famatu bazaigu ere, zinemagintzan bere ibilbidetxo eginda dago, pare bat pelikuletako zuzendaria izan da eta.

Sorgintxulo gaztetxeako euskarazko filmen programazioa aurten pelikula famatu batekin amaituko da: "Tasio". Montxo Armendariz nafar zuzendariak basoetako ikazkinekin eskaintako lan txukun eta ospetsua abenduaren 20an ikusi ahal izango da Santutxuko gaztetxeako zineman.

### Asapala

Mahatsberriko euskara elkarteak  
DINAMIZATZAILEA BEHAR DU  
Interesa izanez gero,  
deitu 94 473 54 48  
edo [asapala@euskalnet.net](mailto:asapala@euskalnet.net)  
postara idatzi

**PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!**  
**SAAK**

**ADI**  
ASESORIA  
FISCAL, CONTABLE, LABORAL  
Y MERCANTIL  
Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
[adiasesor@adi.euskalnet.net](mailto:adiasesor@adi.euskalnet.net)

Zergak-lan harremanak  
kontabilitatea juridikoa  
merkatalgintza

# OTXARKOAGA ETA SANTUTXUREN ARTEKO INKOMUNIKAZIOA

## Autobus zerbitzuaren sarritasunaz kexu dira auzokideak

Zazpi urtez gestioetan ibili eta gero, Santutxu eta Otxarkoaga lotzen dituen autobus lerroa eskuratu dute aurten auzokideek. Otxarkoagako eskaera zaharrak erantzuna jaso du, eta alde onak ikusita ere, lehenengo hutsuneak nabaritzen hasiak dira.

Metroa zerbitzuan hasi eta dexente berandugo, 34 autobusa "lanzadera" deritzon lana betetzeko ezarri dute. Basarrateko metro geltokia eta Otxarkoaga lotzen ditu. Hala izan zedila eskatu zuten baina, auzoen iriziz, helburu hori ez du inolaz ere betetzen. Izan ere, autobusak ez dauka behar den maiztasuna, sarritasuna, auzokideen gustukoa izateko.

Gainera, zerbitzua hasi zenetik okerrera egin du. Gero eta jende gehiagok erabiltzen duenez Udalari ez zaio beste irtenbidea bururatu autobus gehiago ipini beharrean autobus handiagoak ipintzea baino. Eta ondorioak berehala pairatzen hasi dira bidaiariek: autobusa handia baina kaleak ez. Ataskuak, atzerapenak, ... eta gainera kotxeren bat (edo bi edo hiru...) txarto aparkatuta baldin badago, orduan, pazientziak bete eta itxaroten hasi jabea agertu arte, agertzen bada. Inor garabiaren zain balego har dezala lasai, udaltzainek, antza, ez baitute arazoaren berririk txikiena ere izan.



### ESKAKIZUNAK

Zerbitzua hobetzekotan, Otxarkoagako AFOk bi eratan egin daitekeela ikusten du. Alde batetik autobusen maiztasuna ugartuz, 10 edota 15 minutuero bidaia bat izanik. Bestetik, ibilgailuak txikiagoak izatea, manio-brak errez-errez egin ditzaten. Dena dela, eta kontutan hartuta sail horretako zinegotzia gorrarena egiten duela auzokideen eskaeren aurrean, baliteke beste zazpi urtez itxaron behar izaten hobekuntzak ikusteko.

# PINTADA FAXISTAK AEK ETA BATASUNAREN KONTRA



Urriaren 10eko goizean Santutxu-Txurdinagako AEKren euskaltegia eta Santutxuko Herriko Taberna pintada faxistez zikinduta agertu ziren. Kasu bietan mezuak antzekoak ziren, Espainiaren eta Francisco Franco diktadorearen aldekoak, hain zuzen.

AEKren euskaltegia Txurdinagako Arbidea kalean dago. Bertan "Viva Franco", "PP al poder" eta antzeko esaldiak agertu ziren. Mezu faxistok euskaltegiko fatxada guztietan agertu ziren.

Santutxuko Herriko Taberna Iturriaga kalean dago. Haren aurrealdean "Viva España", "Franco" eta "PP" gisako mezuak topatu zituzten goizean lokala zabaltzera joan zirenean. Santutxuko Batasunak agiria atera zuen gertatutakoa salatuz. Ez euskaltegian ezta Herriko Tabernan ere ez zuen inork egileak ikusi.

**Lanbroa**

**ARTESANIA LOIDI**  
Santo Rosario, 1 (Santutxu)  
Tif.: 94 473 10 65

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

# ANTZERKIA ETXEBARRIA PARKEAN

Urriaren 19, barikua, iluntzeko zortzietan ehunka lagun batu zen Etxebarriako parkeko tximinia handiaren inguruan antzerkiak eta dantzaz gozatzeko asmoz. Bilboko Udalak antolatutako Antzerki eta Dantza Garaikidearen hirugarren jaialdiaren barruan Xarxa Teatre konpainiak "Velas e Vents" ikuskizuna eraman zuen oholdza gainera.



Mediterraneo aldeko kutsu nabarmeneko antzez-lana izan zen, arrisku guztien gainetik zebilen barkua protagonista zela. Diseinu modernoak, dantza eta piroteknia efektuak -trakak eta su ikusgarriak, besteak beste- nahastu zituzten Xarxa Teatrekoek.

Ikusle asko batu zen, esan legez, tximinia ondo-pasealeku eta belardietan. Umeak eta gurasoak nagusi ziren arren, adin eta mota guztietako jendea elkartu zen.

"Velas e Vents" ikuskizuna jaialdiaren ale bat baino ez da izan. Besteak Bilborock- La Merced aretoan, Arriaga antzokian, Erriberako merkaturan, Plaza Barrian eta Deustuko La Fundición aretoan gauzatu dira.



# KOMUNA BARRIAK TXURDINAGAKO PARKEAN

Bilboko Udalak komuna barriak ipini ditu Txurdinagako Europa parkean. Orain artean ez egoan bertan holako zerbitzurik. Egon gurean Etxebarriako parkean baino ez, Mallona ondoan bata eta parkearen erdi-erdian bestea. Bilboko beste hiru tokitan be komun publikoak jarrita egozan. Oraingoan Txurdinaga parkean ipinitakoa Etxebarriako parkekoa bezalakoxea da. Bilboko beste bazter batzutan be - Ametzola, ...- jarri dabez. Txurdinagako parkearen kasuan kontuan hartu behar da gero eta jente gehiago dabilela eta inguruan ez dagoala holako komun publikorik.

**ASAPALA**  
KULTUR ELKARTEA


Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: asapala@eusnet.org

# IPUINAK, UMEAK ETA IRAKASLEAK

Galtzagorri elkarteak "Ipuinez ipuin" jardunaldiak egin ditu Begoñako udaltegian



Calvin Inongo-VI-Makome umeekin kontu kontari

*Ipuinak, umeak eta irakasleak harremanetan jarri ditu Galtzagorri talde mahatsorriak urrian Begoñako udaltegian eginiko "Ipuinez ipuin" izeneko jardunaldietan. Kontu kontari etorri direnek umeentzat ez ezik, irakasleentzat ere egin dute, eskoletan ere bien arteko harremanerako bide egokia izan daitekeelakoan.*

**Testua: Arrate Díez**  
**Argazkiak: Iñigo Azkona**

Galtzagorri elkarteak "Ipuinez ipuin" izenpean haur literatur aretoa ospatu du urriaren 2tik 30a bitartean. Ipuin jardunaldi hau Begoñako Udaltegian izan da eta Galtzagorri elkarteak kideek hil osoan ikusgai izan den erakusketa antolatu eta hainbat ipuin kontalariekin harremanetan jarri dira jardunaldi hau martxan jartzeko.

Udaltegiko erakusketa aretoan ipuinak eta panel informatiboak egon dira. Bertan Euskal Herriko zein mundu osoko ipuin kontalariei buruzko datuak zeuden,

besteak beste. Hala, mitologia txinatarrari dagozkion dra-go, herensuge, izpiritu zein jainkoen irudiak ikus zitezkeen. Honez gain, ipuin kontalari batzuen nondik-norakoak ere ikusgai izan dira erakusketa aretoan. Era honetan, Charles Perrault, Hans Cristian Andersen zein Grimm anai ipuin kontalariei buruzko informazioa kontsulta zitezkeen. Hauekin batera, Resurrección Maria Azkue lekittarra, Sarako Mayi Ariztia, Jose Miguel Barandiaran atandarra eta Joxe Arratibel euskal autoreen inguruko panelak

ere egon dira. Erakusketa areto honetan hainbat ipuin liburu ere egon da bertaratu diren guztien eskuragai.

"Ipuinez ipuin" jardunaldi hauetara hainbat ipuin kontalari hurbildu da. Kontalariek umeentzako ipuinak kontatzeaz gain, irakasle zein helduentzako hitzaldiak ere eskaini dituzte. Besteak beste, Itziar Zubizarreta, Antton Irusta, Joxe Mari Carrere, Mohamed M. Hammu, Ray Bueno eta Calvin Inongo-VI-Makome azaldu dira kontu kontari. Gainera, txotxongiloak eta ikastaroak egin dituzte Galtzagorri elkartekoek.

## IPUINAK ZELAN KONTA

Pello Añorga ipuin kontalaririk, ipuinak nola kontatu behar diren inguruko solasaldia eskaini zuen, batez ere irakasleei zuzendua. Pello Añorgaren esanetan, "benetako kontalaririk bere hitzen bidez konektatzen du entzulea bizitzarekin". Historian zehar kontalarien betebeharrak hitzen bitartez herriari indarra ematea zen. Gaur egun ere, bizitzarekin harremanetan jartzeko ere erabiltzen dugu ipuina. Kontalaririk benetako komunikazioa egon daiten denbora konpartitu behar du nahi ta nahi ez entzulearekin eta esperientziarekin gero eta arreta gehiago piztea ere lortuko du.

Ipuinen bitartez hainbat gauza kontatu dezakegu. Ipuinaren kontakizuna kantua, ipuin kateatuak, irudi liburuak, legenda zein mitoak izan daitezke. Era honetan ipuin mota asko kontatu dezakegu: animaliak protagonista bezala dituen ipuinak, herri baten portaera erakusten diguten ohiturazko ipuinak, ipuin harrigarriak, ipuin literarioak, txistek, pasadizoak, norberak asmatutakoak, ...

Ipuina kontatzen duenak kontatzen duenarekin identifikatuta sentitu behar da benetan kontalari ona izan nahi baldin badu. Ez badago konektatuta ipuin hori bere bizimoduarekin ez da kontakizun bizi izango, beraz, ez da kontalari egokia izango.



Irakasleriaren kasuan, saiatu behar dira ipuina kontatzen, ez soilik, metodologikoki aproposa delako, baizik eta ipuina beste zeozergatik ere kontatu nahi duelako. Hala, irakaslea gela barruan ikaslearekiko konfiantza piztuko du eta umeak ere konfiantza konpartitza nahi izango du. Ipuinak xarma berezia du eta helburu didaktiko hutsa bilatzen denean hobe da beste teknika batzuk erabiltzea ipuinaren ordez.

## ARRETA PIZTU

Ipuin kontalarien esanetan hainbat teknika dago ipuinaren gainean umearen arreta pizteko. Besteak beste, begiradaren erabilpena teknika ezin hobea bihurtu

daiteke ondo erabiliz gero. Begiradaren bitartez umearen munduan sar zaitezke eta atentzioa piztea lor daiteke.

Ipuinaren erritmoak ere egundoko garrantzia dauka ipuina kontatzerakoan. Hala, kontu berberaren iraupena oso ezberdina izan daiteke egoeraren arabera. Era berean, ipuina entzuteko momenturik egokiena umeak fresko daudenean da adituen aburuz, inola ere ez umeak aurretik lanean aritu izan badira eta nekatuta egonda.

Adituek diotenez, ipuinak opari gisa eskaini behar zaizkio umeari eta ipuinak benetako magia sortarazten duenean, amaieran entzuleak lekutik mugitu ere ez direnean izaten da, kontakizunak haurrengan isilunea eta magia sortarazi baitu.

ZURE PUBLIZITATEA

BERTON

94 473 54 48



Sugea taberna

Iturriaga, 92

Santutxu

BASTERTXU



TABERNA

Ricardo Bastida plaza

# berton

## MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



### hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerra, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_

Sinadura


# ARNO (612 M) Mutrikutik

Markina eta Ondarroatik hartuta Mutrikura helduko gara. Herriko plazan bertan (A) eskuinaldera Sasiola auzora doan errepidea hasten da. Hortik hartuta 2,5 kilometro egin eta gero Kalbario mendatean (B) egongo gara (233 m). Inguru hartan utzi genuen kotxea. Bertatik eskuinalderantz abiatuta Arnorako bidea hartu genuen. Ikur gorriez oso ondo markatuta dago.

Lehen baserrien ondoan Arnope pilotalekua ikus daiteke. Bertan txoko handi bat dago. Haren ondotik joanda gain txiki bat gainditu bezain laster korta bat dago ezkerrean. Ekarrirako bidea behera eta eskuinaldera doa baina guk errepidea utzita zuzen eta gorantz doan pistatik joko dugu (C). Hortik joanda pinudi batean sartuko gara.

Handik igoaz ate-hesi batzuetatik pasatu behar ditugu. Bigarrenean Ama Birjinaren irudi bat topatuko dugu. Bide honek lepo zabal batera eramango gaitu. Lepo horretan etxola handia dago, baita bidegurutze bat ere. (D)

Ezker eta eskuin alderako bideei kasu egin barik zuzen jarraituko dugu pista polit batetik eta zuhaitz mota askoren artean ibiliz segituko dugu korta bat aurkitu arte. Bidea oso ondo markatuta doa orain ere. Horrela bada, eskuinaldera eta gorantz joango gara. Laster Arno (612 m) tontorrera gaindituko dugu. Harrizko gurutze handi baten ondoan dago txartel kutxa eta ikuspegi zoragarria gure begien aurrean. Berdin itsasoa, Gorbea eta inguruetako ederra ikus daitezke.



### DATU TEKNIKOAK

**Iraupena:** Gorako ibilaldia ordu betean egin daiteke. Zuhaitzak 250-500 m: Lizarra, nekosta, gorostia, pinua, artea, ametza, urkia, pagoa, gurbizta, haritza eta elorri zuria.

**Zuhaitzak 500-600 m:** Urkia, pagoa, alertzea, ametza, urritza, pinua, elorri zuria eta artea.

**Oharra:** Merezki du autoa utzi genuen tokitik (B) itsasaldera begiratuta ikusten den baselizara hurbiltzea. Bertan Santa Kurutz ermita, txoko bat eta probalekua daude eta bertatik ikusten den paisaia zoragarria da.

# Bertsolari txapelketa nagusian mahatsorri bi jardunean

Arkaitz Estiballes bertsolari eta Josu Telleria epaile ordezko ibiliko dira

DONIBANE GARAZITIK 01-10-21 || DONOSTIARA 01-12-16

Euskal Herriko Bertsotale Elkarte

## FINAL-AURREAK

**ETXARRI-ARANATZEKO UDAL PILOTALEKUAN AZAROAK 17 18:00ETAN**

**MARKINAKO UDAL PILOTALEKUAN AZAROAK 18 17:00ETAN**

**AZPEITIKO IZARRAITZ PILOTALEKUAN AZAROAK 24 18:00ETAN**

**BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2001**

**AZAROAK 25 HENDAIKO BELTZENIA PILOTALEKUAN 16:30ETAN**

**ABENDUAK 1 BILBOKO AYALA ANTZOKIAN 18:00ETAN**

**ABENDUAK 2 TOLOSAKO BEOTIBAR PILOTALEKUAN 17:00ETAN**

Testua: J. Larrazabal

**Urriaren 21ean Donibane Garaziko Vouvan zineman abiatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusia'01. Danetara 37 bertsolari arituko dira oholtza gainean eta beste hainbat lagun epaile, gai-jartzaile eta antolatzaile lanetan. Euretarik bi mahatsorriak dira: Arkaitz Estiballes eta Josu Telleria. Biak Santutxuko Bertsolari Eskolakoak. Lan mardula daukate eginkizun abenduaren 16ko Anoetako final handia bitartean.**

## Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2001

Abenduaren 16an Anoetara joateko autobusa eskutik Etorri gurekin!  
deitu 94 473 54 48 edo asapala@euskalnet.net  
postara idatzi

**IMMOBILIARIA**

**Gelaya**

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92  
Tfona. 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

Hemen daukagu atzera be Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Hamahirugarren edizioa hasita dago honez gero eta horrexek dakar bertsozalearen poza. Ikusizunik handienaren gorpila jira-biraka hasi da eta abenduaren 16ko Anoetako belodromo-ekitaldi erraldoian bere unerik gorena lortuko du.

Bertso festa horretan ez da mahatsorririk faltako. Izan ere, Santutxuko Bertso Eskolako kideak, ohi legez, lanean dabilta antolakuntza zereginetan. Eta eskola horretako partaide bat, Arkaitz Estiballes galdakaoztarra, bertso kantari izango da oholtza gainean. Lerro hauek idatzi orduko bere azken-laurdenetako saioa egin barik zegoen: Amurrioren 28an kantatu behar zuen. Bertan final-erdietarako sailkapena lortuz gero, azaroaren 17tik aurrera saio bi egin beharko ditu.

Arkaitz Estiballes Ormaetxeak 24 urte ditu eta Euskal Filologia ikasten du. Bertso jarrien lehiaketa askoren irabazle atera da orain artean eta iazko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako ezusterik handiena izan zen. Finalean sartu ez ezik, laugarren gelditu zen Estiballes Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Haritz Lopategi izar handien atzetik. Aurten bere debuta da Txapelketa Nagusian.

Txapelketako zerrendetan beste mahatsorri bat agertzen zaigu, Josu Telleria santutxutarra hain zuzen. Santutxuko Bertso Eskolako hau be bai, epaile ordezko gisa jarri du bertsozale elkarteak. 34 urte ditu, kazetaria da eta, besteak beste, Bizkaiko Bertsolari Txapelketan jardun du epaile-mahaikide moduan.

### BILBON SAIO BAT

Bertsolari Txapelketa Nagusiak bertsozaleak ez ezik euskaltzale mordoa erakartzen du. Zeozergatik da, gaur egun, euskara hutsez egiten den ekitaldietarik jendetsuenetakoa. Benetan ikusgarria Anoetako belodromoko giroa, bertan dauden milaka lagun artean euskara besterik entzuten ez dela.

Bertsolarien ibilbidea honako hau izango da: behin final laurdenetako bost saioak jokatu, azaroaren 17tik aurrera final-erdiak egingo dira. Lehengo itzulia Etxarri-Aranatzen - azaroak 17-, Markinan -hilak 18- eta Azpeitian azaroak 24- jokatu dira. Finalerdien bigarren bueltako saioek Hendai -azaroak 25-, Bilbon -abenduak 1- eta Tolosan -abenduak 2- egingo dira.

Bilboko finalerdiak Ayala antzokia eukiko du aterpe. Arratsaldeko seieta-tik aurrera, Unai Iturriaga, Jon Maia eta Lesaka zein Legazpiko final-laur-

denetako saioetako irabazleak arituko dira, besteak beste.

Finalerdietako saio guztiak amaitutakoan Anoetako belodromoan nortzuk egongo diren jakingo da. Oraingo izen bakarra dago erabat ziurtatuta. Andoni Egaña, 1997ko irabazleak, azken txapela jantzi izanaren ondorioz aukeri bat gordeta dauka Anoetako oholtza gainean. Gainerako zazpiek izerdia barra-barra isuri beharko dute beste horrenbeste lortzeko.

Bertsolarien adinari erreparatuz gero, Mikel Mendizabal eta Iñaki Murua dira beterranoenak, 45 urteren bueltan baino ez badabilta ere. Atzetik Andoni Egaña eta geroago gazte andana ikaragarria. Historiko batzuk txapelketetako zurrunbilatik urrundu dira -azkena Sebastian Lizaso, 1986ko irabazlea- baina, dudarik ez, bertsolaritzak etorkizuna zeharo bermatuta dauka.

### PREZIOAK

Prezioei dagokienez, finalerdietako saio bakoitzeko sarre-ragatik 1.500 pezeta ordaindu beharko da. Hamasei urtez azpikoentzat 200 pezeta baino ez. Eta final handiko goiz eta arratsaldeko saiorako txartelak 3.500 pezeta eskatuko du, 500 gaztetxo izanez gero. Ohi denez, Bertsozale Elkarteak kideek prezio merkeagoak eukiko dituzte.

**"Arkaitz Estiballesek Txapelketa Nagusirako txartela Bizkaikoan finalista izateagatik lortu du".**

**A**

Biktimganako Laguntza Zerbitzua

Servicio de Asistencia a la Víctima

**Zeurekin gaude**

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
Giza Eskubideen eta Justiziarikito  
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos  
y Cooperación con la Justicia

# horoskopoa

**Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusia apur bat arin etorri jatzu. Baina lau urte barru ez dekozu aitzakiarik: taula ganera igo beharko dozu.

**Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Behar larregi egiten dozu, duda barik. Egizu gitxixeago, astakilo hori, eta, ahal bada, egizu zeozer ondo.

**Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Lehen oso onak ziran eta orain munduan dagozan makalenak. Ez, lagun, hori ligaren legea dozu, domekero begien aurreko paisaia aldatzea.

**Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Zertan habil itzartuta? Hoa, hoa lo egiten, loti eder hori!

**Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Ligetan zeure arrakastak asko bajatu dira azkenaldion. Lehengo xarma famatu hori galduta dekozu. Ez, ostera, beharretik dakarzun izerdi hatsa!

**Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Zergatik kontatu zeuntson den-dena berari? Harek ez eban jakin behar eta orain denok enteratu gara. Hoba dozu hurrengoan geuri baino ez kontatzea.

**Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Hogar del Jubiladokoen betiko berbetaz aborreziduta zagoz? Zoaz ba Sorgintxulora eta, benetan, aspertu ez zara aspertuko.

**Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Kinielakak dirua irabaztea ez dekozu erreza. Burutik pasa jatzu inoiz beharrean hastea?

**Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Mendira joaten hasteko zure urteroko planak oraintxe hasi behar dozuz betetzen. Ostantzean, beste behin berbak alperrik galduko dira.

**Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Bai, bertan dagoz sanmartinak. Berehala hasiko zara geure geografia errepatatzen: Zollo, Zamudio, Arrieta, ... baina euki gogoan munduan badala gehiagorik buskaintzaz gain.

**Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Bin Ladenen igual-iguala zarella diñoeneri kasurik ez. Ibili lasai. Ez dakizu arabieraz eta ez duzu turbanterik jzaten. Eskerrak, bestela...

**Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Diru guztia gastatuta etxean zagoz atzera be. Ez da meritu makala zeurea, hain denpora gitxian horrenbeste milioi alperrik galdu izana!

# agenda

**AZAROAK 9:**  
ZINEMA EUSKARAZ SORGINTXULON.  
"EHUN METRO". 19:00 ETAN. ONDOREN  
HITZALDIA PATXI BISQUERT ETA  
JOSE ANTONIO CALZADAGAZ.

**AZAROAK 9:**  
ANJE DUHALDE ETA MIQUEL PUJADO.  
KAFE ANTZOKIAN. 22:00ETAN.

**AZAROAK 10:**  
OLGETAN JAIA KAFE ANTZOKIAN.  
TAKOLO, PIRRITX ETA PORROT.  
18:30ETAN.

**AZAROAK 11:**  
KONTZERTUA. SARGENTO GARCIA. KAFE  
ANTZOKIAN. 21:30ETAN.

**AZAROAK 11:**  
BILBOKO LIBURU ZAHARREN ETA  
AUKERAKOEN AZOKA ITXIKO DA.

**AZAROAK 15:**  
ZINEMA EUSKARAZ SORGINTXULON.  
"WANDA IZENENKO ARRINA. GOIZEKO  
10:00ETAN ETA ARRATSALDEKO  
20:00ETAN.

**AZAROAK 16:**  
BERTSO AFARIA. ANDONI EGAÑA ETA  
IGOR ELORTZA. KAFE ANTZOKIAN.  
22:00ETAN.

**AZAROAK 18:**  
OLGETAN JAIA KAFE ANTZOKIAN.  
XIRULA MIRULA. 18:00ETAN.

**AZAROAK 22:**  
ZINEMA EUSKARAZ SORGINTXULON.  
"AZKEN MOHIKANO". GOIZEKO  
10:00ETAN ETA ARRATSALDEKO  
20:00ETAN.

**AZAROAK 22:**  
KONTZERTUA KAFE ANTZOKIAN.  
TXUMA MURUGARREN. 22:00ETAN.


**AZAROAK 23:**  
SORGINTXULOREN IPUIN ETA KOMIKI  
EROTIKOEN LEHIAKETARAKO LANAK  
AURKEZTEKO AZKEN EGUNA.

**AZAROAK 25:**  
OLGETAN JAIA KAFE ANTZOKIAN. GOLO-  
KA ANTZERKI TALDEA. 18:00ETAN.

**AZAROAK 29:**  
ZINEMA EUSKARAZ SORGINTXULON.  
"PECATA MINUTA". GOIZEKO 10:00ETAN  
ETA ARRATSALDEKO 20:00ETAN.

**AZAROAK 30:**  
HERRIRA PLATAFORMA MANIFESTAZIOA.  
ARRATSALDEKO 20:00ETAN.

udagoieneko



azaroak

24

larunbata

rogelio  
Botanz

# Rogelio Botanz

## "Tiempo" disko barriaren aurkezpena

Gonbidatuak: Mikel Urdangarin, Tapia eta Leturia

## Bilbo Ayala Antzokian 22:00etan

antolatzailea

**TOPagunea**

babeslea



taguntzaileak

